

ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIXIA



Maristetako beste gabon-batze bat

Lehenago be, orain dala hamahiru bat urte, sail honetantxe atara geben gerra ostetxuan maristetan ikasten ziaharduein mutikuak egindako gabon-batzeiaren argazkixa. **Ha 1943kua zan, eta gaurko hau 1945-1946 ingurukua** izan leike, ikasle asko fotografixa bixetan agerketan dira-eta.

Orduko **ohitturia kalerik-kale ibiltia zan** abenduaren 24an, kantuan eta dirubatzan. Kaletik haruntzago be aillegaitten ziran, batez be **aberats-etxietara**, hareik eskupeko hobia emungo euelakoan: adibidez, **Garai** familiaren bizilekuetara Larrañako euren aparteko esparruan, edota **Ginea-Elortzatarren** txalet dotoretara Goribar auzuan. Batzuetan esperantzak beteten ziran, baiña ez beti.

Ikasturte batzuk berandutxuago, Gabon bezperako ibillera horreitan jarduteko txandia guri heldu xakunian, akordaitten naiz lau mutikoren artian eruaten zan **“belen” edo jaiotza batekin** urten gebela. **Bi gabon-kanta** ikasi gittuan, **bata euskeraz eta bestia erderaz**: euskerazkoa **Belenen sortu zaigu Jainkoa** zala uste dot, eta erderazkoa **Vamos, pastores, vamos** izan zeikien. Sasue illun haretan, **politika-kontuetan iñuzentia giñan artian**, eta iñoiz laprastadaxoren bat baiño gehixago egin ete gebelakuan nago: hau da, erderaz **“tokaitten”** zan lekuan euskeraz kantaittia, eta aldrebes.

Ezkerretik eskumara eta gottik behera honeitxek dira identifikau ahal izan dittugun kantarixok:

Goixeneko illaran zutik: Joxe Mari Martinez de Albeniz; Joxe Luis Ruiz de Arbulo; Joxe Luis Irizar; Jexus Guridi; Juanito Umerez; Jexus Alzelai; Manolo Arregi; [X. X.]; [X. X.]; eta Jexus Astigarraga.

Hirugarren illaran zutik: Koldo Zulueta; Juanito Kortabarria; Jabier Galdos; Karlos Odriozola; Anjel Etxeberria; Teofilo Etxegoien; [X. X.]; Felix Altuna; Antonio Zabarte; Joxe Arregi; eta Jexus Mari Elorza.

Bigarren illaran bankuan jarritta: Juanito Biain, saxofoiarekin; Rafael Murua [?]; Juanito Urzelai; Joxe Mari Ezpeleta; Juan Joxe Aristegi; [X. X.]; Joxe Antonio Garai; eta Felix Kortabarria, saxofoiarekin.

Lehenengo illaran, lurrian jarritta: Rafael Zulueta; Jabi Altube [?]; Joxe Elorza; Salvador Ugarte; Patxi Irizar; Ramon Arregi; Joxe Luis Arregi; [X. X.]; eta [X. X.] makurtuta.

la falta diran banaka horrein izenen barri emuten lagunketan doskuzuen. Eskerrik asko!

Argazkixa Teofilo Etxegoienek eta Juanita Uribetxeberrriak jaretakua da.
Argibide batzuk Anjel Etxeberriak samurtu dosku. Milla esker!